



FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure zerbitzuak funtziona dezan honako hauek dira kontuan izan eta zaindu behar ditugun **aspektu garrantzitsuenak**:

Alde batetik, gure proiektua martxan jartzeko elkarrekin harremanetan jarriko gara eta horren baitan ekintza batzuk zehaztuko ditugu. Bide horretan, eskualdeko eskola ezberdinekin ere kontaktuan jarriko gara gure proiektua aurkezteko. Behin harremanak finkatuta, eskolek ahalbidetuko digute familiekin kontaktuan hastea. Horretarako eskutitz edo eskuorri formatuak sortuko ditugu izan paperean edo digitalean.

Bestalde, datu basea sortuko dugu bezero eta bazkideen datuekin, informazioa banatzeko. Gainera, web orria eta sare sozialak sortuko ditugu.

Gure proiektua ezagutzera emateko ate irekiak egingo ditugu astean zehar eta asteburuetan, horrez gain, prentsan elkarrizketa eta erreportajeak ere egingo ditugu.

Gure lurraldean hizkutzaren egoera zein den kontuan izanik elebiak izango gara.

Argi dago beraz, gure enpresak badituela **funtsezkoak diren hainbat jarduera**; ekoizpena, plataforma edo sareko jarduerak eta arazoak konpontzea alegia.

Lehenik aipatu, **ekoizpenaren** aldetik gure proiektuak zerbitzu bat eskaintzen duela eta ez ekoizpen fisiko edo material zehatz bat. Hala ere, jarduera edo ekintza batzuetan ekoizpen fisiko bat egoteko aukera egongo da (tailer batzuetan kandelak edo beste batzuetan iogurrak...) baina ez da soilik horretara mugatuko eskaintza zabalagoa eskainiko dugu. Hona hemen jarduera edo ekintza horien adibide batzuk:

- Baratza



- Irteerak (fauna eta flora lantzeko: basora, urmaelera...)
- Txangoak (Alarpe zalditegira, lztuetara jogurta eta esnea ekoiztera)
- Otorduak
- Aisiari lotuta jarduera fisikoa (mugimendu askea, yoga, dantza...)
- Tailer, hitzaldi eta formakuntza ezberdinak (Komukazio Ez Bortitza, adimen emozionala, ogia egitea...)

Plataforma edo sareko jardueri dagokionez, webgunea eta sare sozial desberdinen bitartez zerbitzu automatizatua eskainiko diegu. Bertan hitzaldi edo tailerretako sarrerak hartzeko aukera izango dute. Halaber, egonaldirako eta jardueretarako txandak eskatu ahalko dituzte. Azkenik, hitzaldi eta tailer batzuk *streaming* bidez eskainiko ditugu, aurrez aurre egoteko aukera ez dutenentzako. Modu honetan urrutiagoko bezeroak lortuko ditugu.

Eta azkenik gure zerbitzuak izan ditzaken **arazoak konpontzeko**, bezero berriekiko arreta eta laguntza pertsonalizatua emango da. Batetik, aurrez aurreko harremana izateko aukera eskainiko dugulako hezigunean bertan. Bestetik, telefono zenbaki baten bidez edota email bidez, haien zalantzak argitzeko aukera eskainiko diegu.